




# **INGURUMEN-ADIERAZPENA LURRALDE ARLOA 2023**

**Urretxuko Udala**

**Iparragirre, 20  
20700 Urretxu (Gipuzkoa)**



## AURKIBIDEA

<b>1. URRETXUKO UDALAREN AURKEZPENA</b> .....	<b>1</b>
1.1. UDALAREN DESKRIBAPENA .....	1
1.2. URRETXUKO UDALAREN INSTALAZIOEN KOKAPENA.....	3
1.3. ORGANIGRAMA.....	4
<b>2. KUDEAKETA-SISTEMAREN AURKEZPENA</b> .....	<b>5</b>
2.1. URRETXUKO UDALAREN INGURUMEN-POLITIKA .....	5
2.2. INGURUMEN-KUDEAKETAKO SISTEMAREN DESKRIBAPENA.....	6
2.3 IRISMENA.....	7
<b>3. ERAKUNDEAREN ETA PLANGINTZAREN TESTUINGURUA</b> .....	<b>10</b>
3.1. ERAKUNDEAREN TESTUINGURUA.....	10
3.1.1. Erakundea eta haren testuingurua ulertzea .....	10
3.1.2. Interesdunen ulermena eta haien beharrak edo itxaropenak.....	10
3.2. PLANGINTZA.....	10
3.2.1. Ingurumen-alderdiak.....	10
3.2.2. Lege-betekizunak eta beste betekizun batzuk .....	21
3.2.3. Ekintzen plangintza .....	22
<b>4. LANGILEEK PARTE HARTZEKO PROGRAMA</b> .....	<b>22</b>
<b>5. INGURUMENA KUDEATZEKO PROGRAMA</b> .....	<b>22</b>
5.1. INGURUMENA HOBETZEKO PLANA (2023. URTEA).....	22
5.2. INGURUMENA HOBETZEKO PLANAREN JARRAIPENA (2022. URTEA).....	24
5.3. INGURUMENA HOBETZEKO PLANA (2023. URTEA).....	28
5.4. ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTU SEKTORIALAK .....	29
<b>6. ERAKUNDEAREN INGURUMEN-PORTAERAREN BILAKAERA</b> .....	<b>30</b>
6.1. ENERGIA-ERAGINKORTASUNARI BURUZKO DATUAK .....	30
6.1.1 Energia elektrikoaren eta gas naturalaren kontsumoa.....	30
6.1.2. Erregaien kontsumoa .....	31
6.1.3. Energia-kontsumoa guztira.....	31
6.1.4. Energia berriztagarriaren kontsumoa guztira .....	32
6.1.5. Energia berriztagarria sortzea .....	32
6.2. MATEIALEN KONTSUMOAREN ERAGINKORTASUNARI BURUZKO DATUAK .....	33
6.2.1. Paper-kontsumoa (A4 +A3).....	33
6.2.2. Tonerren kontsumoa.....	34
6.2.3. Erabilitako materialen urteko masa-kontsumoa .....	34
6.3. UR-KONTSUMOARI DAGOZKION DATUAK.....	35
6.4. HONDAKINEI BURUZKO DATUAK .....	36
6.4.1. Arriskutsuak ez diren hondakinak sortzea .....	36
6.4.2. Paper eta kartoiien hondakinak.....	36
6.4.3. Ontzien hondakinak .....	37
6.4.4. Errefusa (zaborra).....	38
6.4.5. Hondakin organikoak.....	38
6.4.6. Hondakin arriskutsuak.....	39
6.4.7. Urtean guztira sortutako hondakinak. ....	39
6.5. BIOANIZTASUNA. LURZORUAREN OKUPAZIOA .....	40
6.5.1. Udaletxeak hartzen duen lurzoruaren erabilera osoa.....	40

6.5.2 Udaletxearen azalera zigilatua .....	40
6.5.3 Naturara bideratutako azalera udaletxean.....	40
6.5.4 Naturara bideratutako kanpo-azalera .....	40
(m <sup>2</sup> /biztanle) .....	40
<b>6.6. EMISIOEI BURUZKO DATUAK .....</b>	<b>41</b>
6.6.1. NO <sub>x</sub> emisioak.....	43
6.6.2. SO <sub>2</sub> emisioak .....	44
6.6.3. PM10 emisioak.....	44
6.6.4. Emisioak guztira (NO <sub>x</sub> + SO <sub>2</sub> + PM10).....	45
6.6.5. Berotegi Efectuko Gasen emisioak (CO <sub>2</sub> ).....	46
<b>6.7. HERRITARREN ENERGIA-KONTSUMOARI BURUZKO DATUAK .....</b>	<b>47</b>
<b>6.8. HERRITARREN UR-KONTSUMOARI BURUZKO DATUAK.....</b>	<b>48</b>
<b>6.9. HERRITARREK GUZTIRA SORTUTAKO HONDAKINEI BURUZKO DATUAK.....</b>	<b>48</b>
<b>6.10. UDALERRIKO BEG EMISIOEN SORRERARI BURUZKO DATUAK .....</b>	<b>49</b>
<b>7. INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE ONENAK, INGURUMEN-JOKABIDEAREN</b>	
<b>ADIERAZLEAK ETA BIKAINTRASUN-PARAMETRO KONPARATIBOAK.....</b>	<b>49</b>
7.1 INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE ONENAK BULEGO JASANGARRIETARAKO	
49	
7.1.1 Energia-kontsumoa kudeatzea eta minimizatzea .....	49
7.1.2 Ur-kontsumoa kudeatzea eta minimizatzea.....	50
7.1.3 Hondakinen sorrera kudeatzea eta minimizatzea.....	51
7.1.4 Bulegoko paperaren eta material suntsikorraren erabilera minimizatzea .....	53
7.1.5 Etxeko eta laneko joan-etorrien eta bidaiari profesionalen ingurumen-inpaktua dhal	
beste murriztea .....	54
7.2 INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE ONENAK, ENERGIA JASANGARRIAREKIN	
ETA KLIMA-ALDAKETAREKIN LOTUTA .....	55
7.2.1 IKJO estrategikoak .....	55
7.2.2 IKJO zuzeneko eragiketei lotuta.....	57
7.2.3 IKJO udalerrien erregulazio eta plangintzako funtzioei dagokienez eta udalerriek	
lurraldean duten eraginarekin lotuta .....	59
7.2.4 Ingurumen-kudeaketako jardunbide onenak mugikortasunarekin lotuta .....	60
7.2.5 Ingurumen-kudeaketako jardunbide onenak lurraren erabilerarekin lotuta .....	61
7.2.6 Ingurumen-kudeaketako jardunbide onenak hiriko berdeguneekin lotuta .....	61
7.3 INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE ONENAK, INGURUKO AIREAREN	
KALITATEAREKIN LOTUTA .....	62
7.4 INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE ONENAK KUTSADURA AKUSTIKOAREKIN	
LOTUTA.....	63
7.5 INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE ONENAK HONDAKINEN KUDEAKETAN.....	64
7.6 INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE ONENAK URAREN HORNIDURAN .....	65
7.7 INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE ONENAK HONDAKIN-URETAN.....	65
7.8 INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE ONENAK KONTRATAZIO PUBLIKO	
EKOLOGIKORAKO .....	66
7.9 INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE ONENAK INGURUMEN-HEZKUNTZAN ETA	
INFORMAZIOAREN HEDAPENEAN.....	67
<b>8. KEXAK ETA SALAKETAK .....</b>	<b>68</b>
<b>9. INGURUMEN-LEGEDIA BETETZEARI BURUZKO LABURPENA .....</b>	<b>68</b>
<b>BORONDATEZKO HITZARMENAK.....</b>	<b>75</b>
<b>10. INGURUMEN-EGIAZTATZAILA AKREDITATUAK INGURUMEN-ADIERAZPENA</b>	
<b>BALIOZKOTZEA .....</b>	<b>71</b>

## **1. URRETXUKO UDALAREN AURKEZPENA**

### **1.1. UDALAREN DESKRIBAPENA**

Urretxuko Udala tokiko erakunde bat da; Urretxuko herritarrei ematen die zerbitzua, eta 750 hektarea baino gehiagoko lurralde-eremua kudeatzen du. Urretxuko Udal Erroldaren 2022ko urtarrilaren 1eko urteko berrikuspenaren arabera (EUSTAT), 6799 biztanle ditu Urretxuk. EJSNko zenbakia 84.11 da (Herri-administrazioaren jarduera orokorrak).

Urretxuko Udalak Tokiko Agenda 21 ezartzeko eta garatzeko prozesua hasi zuen 2001eko abenduan. Hala, udalerriko ingurumena eta baliabide naturalak babesteko konpromiso sendoa eta aktiboa hartu zuen, udal-kudeaketa eta urretxuarren bizi-kalitatea hobetzeko asmoz. Izan ere, udalaren osoko bilkurak, 2001eko abenduaren 26an egindako ezohiko bilkuran, Aalborgeko Gutunari atxikitzea erabaki zuen, Tokiko Agenda 21 ezartzeko lehen urrats moduan.

2021az geroztik, hiru ekintza-plan idatzi dira, eta 2022an amaitu zen Urretxuko 3. Ekintza Plana, 2015-2022 urteei zegokiena. 2023. urtean, beste ekintza-plan bat idatziko da, 2030 Agendaren garapen jasangarriko helburuekin bat egingo duena.

Bestalde, azpimarratu behar da 2003an Urretxuko Udala Udalsarean sartu zela, Udalerri Jasangarrien Euskal Sarean. Erakunde horretan 19 urte egin ondoren, 2022an berri egin da erakunde horrekiko atxikipena, 2026ra arte. Udalsareko kide den aldetik, udalak konpromisoa hartzen du 2030 Agenda gauzatzeko, bai eta berori abiarazteko zereginean eta sarean aktiboki parte hartzeko ere. Alde horretatik, 11. programako adierazleak kalkulatzeko lanean ari gara gaur egun.

Ingurumena hobetzeko lan-ildo horren barruan, besteak beste, Urretxuko Klima Aldaketaren aurkako Plana idatzi da (2017an onartu zen), eta Ekoscan Plus Kudeaketa Sistema ezarri da. Legegintzaldiko Planaren 3. ardatzaren barruan sartzen da honako ekintza hau: "13.3 Ekoscan Plus ziurtagiria mantentzea". Ekoscan metodologiatik 1221/2009 (EE) Erregelamenduak eskatutakora trantsizioa egitea proposatu du Eusko Jaurlaritzak. Erregelamendu hori erakundeek EMAS Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistemaren borondatez parte hartzeari buruzkoa da, eta 2017/1505 (EB) Erregelamenduak eta 2018/2026 (EB) Erregelamenduak aldatu zuten. Horregatik, Urretxuko Udalak ahalegina egin du Ekoscan kudeaketa-sistematik Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistemarako (EMAS) trantsizio hori egiteko.

EMAS sistemarako trantsizio horren barruan, Urretxuko Udalak Garapen Jasangarriko 17 Helburuei (GJH) egiten dien ekarpena aztertu da. Zehazki, udalaren Lurralde Arloko kudeaketa-eremuak honako helburu hauek lortzen laguntzen du:

	<p>Helburua: gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea</p> <p>Nola: nekazariei, abeltzainei eta tokiko merkatuei lagunduz, elikadurari buruzko erabaki jasangarriak hartuz, guztiontzako elikadura ona bultzatuz eta elikagaiak alferrik galtzearen aurka borrokatuz.</p>
	<p>Helburua: guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.</p> <p>Nola: mugikortasun jasangarria, hau da, ekitatiboa, efizientea, berdea eta segurua sustatuz, eta airearen kalitate eta akustika seguruaren alde lan eginez, herritarren osasuna eta ongizatea babesteko.</p>
	<p>Helburua: uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.</p> <p>Nola: edateko ura banatzeko eta hornitzeko sareen eraginkortasuna hobetuz eta saneamendu-sarea osatuz, hondakin-ur guztiek arazketa egokia jaso dezaten naturara isuri aurretik.</p>
	<p>Helburua: energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat.</p> <p>Nola: udalerriko energia-iturri guztien artean energia berriztagarrien proportzioa handituz. Udalerriko kolektibo guztiei energia eskuratzeko aukera ziurtatuz eta energiaren erabilera eraginkorraren alde lan eginez.</p>
	<p>Helburua: azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta jasangarria bultzatzea eta berrikuntza sustatzea.</p> <p>Nola: enpresa-proiektuen eta -ekimenen kudeaketa jasangarria bermatuko duten arauak eta erregelamenduak ezarriz.</p>
	<p>Helburua: hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.</p> <p>Nola: hiri-garapen integratzailea eta jasangarria planifikatuz, biztanleei berdegune eta espazio publiko seguruak, inklusiboak eta irisgarriak emanez eta artifizializatutako lurzorua ahal den neurrian murriztuz.</p>
	<p>Helburua: kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.</p> <p>Nola: produktuek eta zerbitzuek beren bizi-zikloan dituzten ingurumen- eta gizarte-ondorioak hobeto ulertuz. Hondakinak murriztuz; eta kontsumitzerakoan gogoeta sustatuz, ahal den guztietan aukera jasangarri baten alde eginez.</p>
	<p>Helburua: neurri urgentek hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko.</p> <p>Nola: udalerriak klimarekin lotutako arriskuen aurrean duen erresilientzia eta egokitze gaitasuna indartuz, udal-estrategietan klima-aldaketari buruzko neurriak txertatuz eta herritarrak klima-aldaketara egokitzearen inguruan sentsibilizatuz.</p>
	<p>Helburua: basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta lehengoratztea, eta bioaniztasunaren galera gelditzea.</p> <p>Nola: ingurune naturala ondo kudeatuz, ekosistema osasungarriak izaten laguntzeko eta, aldi berean, pertsonen osasunean eragiteko. Funtsezkoa da tokiko komunitateen parte-hartzea bermatzea eremu horien garapenean eta kudeaketan.</p>
	<p>Helburua: bizikidetzarekin eta herritarren segurtasunarekin, kultura-aniztasunarekin eta bakearekin lotutako alderdiak jorratzea. Horiez gain, honako hauek ere jorratuko dira: kontuak ematea, erakundeen gardentasuna eta informazioa eskuratztea, sailen arteko koordinazioa eta</p>

jasangarritasunarekin lotutako beste erakunde edo ekimen batzuekin koordinatzea, bereziki, Eskolako Agenda 21ekin. Indarkeria mota guztiak nabarmen murriztea.

Nola: EMAS Erregelamendua ezarri eta 2030 Agendaren Ekintza Plana abian jarri. Eta Eskolako Agenda 21 babestuz.

## **1.2. URRETXUKO UDALAREN INSTALAZIOEN KOKAPENA**

URRETXUKO UDALAREN instalazioak Urretxun (Gipuzkoa) daude, Iparragirre kaleko 20. zenbakian.

**URRETXUKO UDALAREN instalazioak kokatuta dauden lekuaren aireko argazkia**


**URRETXUKO UDALAREN instalazioak kokatuta dauden eraikinaren argazkia**

### 1.3. ORGANIGRAMA

URRETXUKO UDALAREN egitura funtzionala honako organigrama honetan laburbiltzen da:



URRETXUKO UDALEKO Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren (IKS) koordinatzailea Amaia Lizarralde da, eta hau da harekin harremanetan jartzeko helbidea:

 Iparragirre kalea, 20. 20700 URRETXU (Gipuzkoa))

943038082

 [ingurugiro.ur@urretxu.eus](mailto:ingurugiro.ur@urretxu.eus)

## **2. KUDEAKETA-SISTEMAREN AURKEZPENA**

### **2.1. URRETXUKO UDALAREN INGURUMEN-POLITIKA**

Udalerriko ingurumena eta baliabide naturalak babesteko hartutako konpromisoarekin aurrera jarraitzeko, **URRETXUKO UDALEKO** Gobernu Taldeak, Lurralde Arloko langileekin batera, ingurumena babesteko jarraibide hauek garatu ditu:

- Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat garatzea eta ezartzea, gure jarduerak sistematikoki planifikatzeko eta kontrolatzeko funtsezko tresna gisa, jarduera, instalazio eta zerbitzuei lotutako ingurumen-inpaktuak gutxitzeko, ekonomia zirkularren eta jasangarritasunaren ikuspegitik.
- Gure jarduerari aplika dakiekeen ingurumen-legeria eta araudia nahiz Urretxuko Udalak sinatzen dituen bestelako ingurumen-baldintzak betetzea.
- Etengabeko hobekuntzarako eta kutsadurari aurrea hartzeko dugun konpromisoa bermatzea, gure ahaleginak Urretxuko Udalaren ingurumen-jarduna hobetzera bideratuz.
- Ingurumena babesteko eta etengabe hobetzeko helburuak eta jomugak ezartzea, eta horiek garatzeko ingurumen-programak egitea.
- Gure erakundearen ingurumen-jarduna aldizka berrikustea, ahulguneak detektatzeko, beharrezko ekintzak burutzeko eta egindako aurrerapenak dokumentatzeko.
- Udaleko langileei gure jarduerari eta haien funtzioei lotutako ingurumen-alderdiei buruzko informazioa, prestakuntza eta motibazioa ematea, lanpostuan duten portaera ingurumenarekiko modu arduratsuan gauzatu dadin.
- Ingurumen-politika ezartzen dela ziurtatzea, eta erakundearen beraren eta, oro har, jendearen eskura jartzea.
- Udalerrian Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzen laguntzea, Tokiko 2030 Agenda ezarriz, jasangarritasunaren aldeko Europako hirien gutunean ezartzen denaren ildotik; horretarako, klima-aldaketaren aurrean egokitzeko, ekonomia zirkularra sustatzeko, bioaniztasuna babesteko eta trantsizio energetikorako neurriak ezarriko dira.
- Udal-ingurunea zaintzea, kalitate handiko zerbitzua emateko eta udalerrian garapen ekonomikoa bermatzeko dugun misioa kutsadurari aurrea hartzeko eta ingurumena eta baliabide naturalak babesteko oinarritzko premisarekin bateragarri eginez, etengabeko hobekuntza-prozesu batean eta gure jarduerak eta zerbitzuek eragindako inpaktuei aurre eginez.

Urretxun, 2022ko apirilaren 4an  
Alkatea



Jon Luqui Albisua



## **2.2. INGURUMEN-KUDEAKETAKO SISTEMAREN DESKRIBAPENA**

**Ingurumena Kudeatzeko Eskuliburuan** dago definituta Urretxuko Udalaren Ingurumena Kudeatzeko Sistema, eta honako atal hauetan egituratuta dago:

0. SARRERA
1. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA
2. KONTSULTARAKO ARAUAK
3. TERMINOAK ETA DEFINIZIOAK
4. URRETXUKO UDALAREN TESTUINGURUA
  - 4.1. Erakundea eta haren testuingurua ulertzea
  - 4.2. Interesdunen ulermena eta haien beharrak edo itxaropenak
  - 4.3. Ingurumen-kudeaketako sistemaren irismena
  - 4.4. Ingurumena Kudeatzeko Sistema
5. LIDERGOA
  - 5.1. Lidergoa eta konpromisoa
  - 5.2. Ingurumen-politika
  - 5.3. Rolak, erantzukizunak eta agintariak
6. PLANGINTZA
  - 6.1. Arriskuei eta aukerei aurre egiteko ekintzak
    - 6.1.1. Orokortasunak
    - 6.1.2. Ingurumen-alderdiak
    - 6.1.3. Lege-betekizunak eta beste betekizun batzuk
    - 6.1.4. Ekintzen plangintza
  - 6.2. Ingurumen-helburuak eta horiek lortzeko plangintza
7. LAGUNTZA
  - 7.1. Baliabideak
  - 7.2. Eskumena
  - 7.3. Kontzientzia hartzea
  - 7.4. Komunikazioa
  - 7.5. Informazio dokumentatua
8. ERAGIKETAK
  - 8.1. Eragiketen plangintza eta kontrola
  - 8.2. Larrialdien aurreko prestakuntza eta erantzuna
9. JARDUNAREN EBALUAZIOA
  - 9.1. Jarraipena, neurketa, analisia eta ebaluazioa
  - 9.2. Barne-auditoriak
  - 9.3. Zuzendaritzak Ingurumena Kudeatzeko Sistema berrikustea
10. HOBEKUNTZA
  - 10.1. Orokortasunak
  - 10.2. Desadostasuna eta ekintza zuzentzaileak
  - 10.3. Etengabeko hobekuntza

Ingurumena Kudeatzeko Eskuliburuaren osagarri, honako **PROZEDURA** hauek daude:

- IEP 4. Erakundearen testuingurua
- IEP-5.3. Ingurumen Batzordearen antolaketa eta funtzionamendua
- IEP 6.1. Arriskuen kudeaketa aukerak
- IEP 6.1.2. Ingurumen-alderdiak identifikatzea eta ebaluatzea
- IEP 6.1.3. Ingurumenari buruzko lege-eskakizunak identifikatzea eta horien jarraipena kontrolatzea
- IEP 6.2. Ingurumen-helburuak eta plangintza ezartzea
- IEP 7.2. Prestakuntza
- IEP 7.2. Komunikazioa
- IEP 7.5.2. Dokumentuak egitea, kodetzea, kontrolatzea eta banatzea
- IEP 7.5.3. Erregistroak artxibatzea
- IEP-8.1-01 Ingurumen kudeaketa bulegoan
- IEP-8.1-02 Hornitzaileen eta azpikontratisten kontrola
- IEP-8.2. Larraldi-planak eta erantzuteko gaitasuna
- IEP-9.1. Jarraipena eta neurketa
- IEP-9.2.2. Sistemaren barne-ikuskaritza
- IEP-9.3. Zuzendaritzaren berrikuspena
- IEP-10.2. Desadostasunak kudeatzea eta ekintza zuzentzaileak

Azkenik, Kudeaketa eta Prozeduren Eskuliburuan deskribatutako ekintzak gauzatu direla erakusten duten **erregistroak** daude.

## **2.3 IRISMENA**

Urretxuko Udaleko Lurralde Arloan garatzen diren zerbitzuen kudeaketa hartzen du barnean sistemaren irismenak (Hirigintza eta Etxebizitza, Obrak eta Zerbitzuak, Ingurumena eta Landa Garapena, Mugikortasuna eta Garraioa eta Segurtasuna eta Babes Zibila).

Sistemaren irismenaren barnean, honako hauek hartzen dira kontuan: erakundearen eta haren testuinguruaren ulermena; barneko eta kanpoko gaiak; lege-eskakizunak eta beste betekizun batzuk, jarduerak, produktuak eta zerbitzuak, bizi-zikloaren ikuspegitik.

Udalan (Iparragirre kalea, 20) garatzen diren jarduera eta zerbitzu hauek sartzen dira:

### **Hirigintza eta Etxebizitza:**

- Plangintza
- Obra txikietarako lizentziak: etxebizitzak, sukaldeak, komunak, leihoak eta abar eraberritzea.
- Obra handietarako lizentziak: etxebizitza berriak eraikitzea, eraikinak, industria-pabiloiak, eraispenak, urbanizazioak, igogailuak eta abar.
- Irekitzeko lizentziak hainbat jardueratarako:
  - ✓ Aurretiko komunikazioa behar dutenak: saltokiak oro har, bulegoak, kontsultak...
  - ✓ Sailkatuak: ingurumenari eta auzokoei begira arazo eta hondakin gehien sor ditzaketanak (ostalaritza, zenbait fabrika, supermerkatuak...).
- Erabilera aldatzeko lizentziak

- Lehen okupazioko lizentziak
- Titulartasun-aldaketak
- Lursailak edo lokalak bereizteko lizentziak.
- Hirigintza-kontsulta orokorrak

#### **Obrak eta Zerbitzuak:**

- Udalaren obrak eta proiektuak gauzatzea.
- Herri barruko bideak eta udal-instalazioak mantentzea eta hobetzea.
- Kultura- eta jai-jardueretarako muntaketak.
- Udal-hilerria mantentzea.
- Enpresa esleipendunek zeharka ematen dituzten zerbitzuen jarraipena:
  - ✓ Kale-garbitzea.
  - ✓ Lorategiak, berdeguneak eta zuhaitzak mantentzea eta kontserbatzea.
  - ✓ Argiteria publikoa.
  - ✓ Edateko uraren eta saneamenduaren sarea.
  - ✓ Zabor-bilketa, Sasieta Mankomunitatearekin lankidetzan.
- Bizilagunek zaratei, hiri-altzariei, udal-eraikinei eta abarri buruz egindako kexa eta iradokizunei erantzutea.

#### **Ingurumena eta Landa Garapena:**

- Tokiko Agenda 21eko Plana garatzea eta sustatzea eta Eskolako Agenda 21ean parte hartzea
- Ingurumen-sentsibilizazioko kanpainak diseinatzea, garatzea eta antolatzea
- Ekoscan ziurtagiria mantentzea udalean
- Udal-eraikinen eta udal-argiteriaren eraginkortasun energetikoa hobetzea
- Ingurumenean eragina izan dezaketen proiektu, jarduera edo lizentziei buruzko txosten teknikoak idaztea
- Hondakinen gaikako bilketaren jarraipena egitea eta birziklatze-tasa hobetzeko ekintzak egitea
- Airearen kalitatearen jarraipena: Inma proiektua
- Jarduerak eta azpiegiturak sortutako zarataren kontrola
- Landa-ingurune bide publikoak mantentzea, kontrolatzea eta haien jarraipena egitea
- Landa-garapeneko programen jarraipena egitea
- Landa-ingurunean eskaintzen diren zerbitzuen jarraipena
- Espezie inbaditzaileen kontrola
- Ingurumenarekin edota landa-ingurunearekin lotutako proiektuetan inplikaturako beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea: Uggasa, Goimen, Sasieta Mankomunitatea, Ihobe, GFA, EJ

### **Mugikortasuna eta Garraioa:**

- Hirigunean zaurituak eragin dituzten zirkulazio-istripuen atestatuak egitea.
- Hirigunean hildakoak eragin dituzten zirkulazio-istripuen atestatuak egitea.
- Bide-segurtasunaren aurkako delituak.
- Hiriguneko istripuei buruzko txosten teknikoak.
- Zirkulazioko kanpaina espezifikoak (IAT, aseguruak, argiak, etab.) hirigunean.
- Hiriguneko kirol- edo kultura-ekitaldietako zirkulazioa kontrolatzea.
- Dokumentazioa kontrolatzeko kanpainak (gidabaimena, aseguruak, etab.).
- Seinaleztapen-anomaliak egiaztatzea.
- Zirkulazio-ordenantzak hausteagatiko salaketak.
- Hiriguneko zirkulazio-arauak hausteagatiko salaketak.
- *Ertzaintzak hirigunean egindako alkohol- eta droga-proben administrazio-salaketa edota atestatua egitea.*
- *Bide-hezkuntza.*
- Uholdeengatik, suteengatik, elurteengatik eta abarregatik hirigunean zirkulatzeo neurri bereziak.
- Eskolako sarbideak babestea.
- Hiri-eremuko ohiko erregulazioa eta ezohiko inguruabarrak.
- Zirkulazioa arautzea hiriguneko zirkulazio-istripuetan.
- Ibilgailuak hiri-eremuan ibilgetzea.
- Ibilgailuak bide publikotik kentzea eta gordailuan uztea, arau-haustea, istripua, abandonua edo bestelako arrazoiak direla eta.
- Hirigunean zirkulazio-salaketak izapidetzea.

### **Herritarren Segurtasuna eta Babes Zibila:**

- HSBLoren salaketak izapidetzea.
- Kaleko salmenta kontrolatzea.
- Galdutako objektuak eta dokumentazioa berreskuratzea.
- Udal-ordenantzen aurkako arau-hausteen salaketak.
- Helbide-ikerketak beste administrazio batzuetarako.
- Bide publikoaren eta hiri-altzarien egoera ikuskatzea.
- Bide publikoko okupazioak ikuskatzea.
- Etxeko animaliak edo animalia arriskutsuak edukitzeari buruzko udal-araudiaren hausteak.
- Arriskuan edo babesik gabe dauden pertsonentzako laguntza eta arreta.
- Tokiko agintariak babestea.
- Adingabeak baimenik gabeko lokaletan onartzea.
- Zalaparta edo liskar larriak kalean, establezimenduetan edo esparru publikoetan.
- Herritarren segurtasunarekin lotutako beste arau-hauste batzuk.
- Beste zaintza batzuk.
- Masa-kontzentrazioen kontrolak (ikuskitzuna, kirol-ekitaldiak).
- Herriko eta auzoko jaien kontrola.
- Manifestazioen kontrola eta babesa.
- Polizia-kontrola, HSBLoren arabera.
- Pertsona susmagarriak erregistratzea eta identifikatzea.
- Jardunaldi berezien babesa.
- Udaletxearen kanpoko eta barruko babesa.

- Udal instalazioak eta obrak zaintzea eta babestea.
- Segurtasun-eskaerei premiazko erantzuna ematea.
- Udal-instalazioak itxi eta hustea.
- Debekatutako armak edukitzea eta konfiskatzea.
- Estupefazianteak legez kanpo edukitzea.
- Lokaletako arduradunek onartutako droga-kontsumoa edo -trafikoa.
- Adingabeei edari alkoholodunak saltzea.
- Talde gatazkatsuak zaintzea eta kontrolatzea espazio publikoetan.
- Patruilatze prebentiboa hirigunean.
- Bandalismoa eta kalteak.

## **3. ERAKUNDEAREN ETA PLANGINTZAREN TESTUINGURUA**

### **3.1. ERAKUNDEAREN TESTUINGURUA**

#### **3.1.1. Erakundea eta haren testuingurua ulertzea**

URRETXUKO UDALAK urtero zehazten ditu bere asmoetarako eta zuzendaritza estrategikorako egokiak diren kanpoko eta barneko gaiak, ingurumena kudeatzeko sisteman aurreikusitako emaitzak lortzeko gaitasunari eragiten diotenak, positiboki zein negatiboki. Erakundean eragin dezaketen edo erakundearen eragina jaso dezaketen ingurumen-baldintzak ere hor sartzen dira. Horretarako, "AMIA ANALISIA" tresna aplikatuko da, gure testuinguruaren ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak aztertzen dituen.

#### **3.1.2. Interesdunen ulermena eta haien beharrak edo itxaropenak**

Erakundearen testuinguruaren azterketaren zati bat alderdi interesdunak identifikatzea da, bai eta haien beharrak eta itxaropenak ere.

URRETXUKO UDALAK alderdi interesduntzat hartzen du Urretxuko Udalaren erabaki edo jarduera baten eraginpean egon daitekeen pertsona edo erakunde oro, bai eta eragin diezaiokeen oro edota eragin diezaiokeela pentsa daitekeen oro ere.

URRETXUKO UDALAK urtero identifikatzen ditu alderdi interesdunak, eta haien beharrak eta itxaropenak aztertzen ditu.

### **3.2. PLANGINTZA**

#### **3.2.1. Ingurumen-alderdiak**

Ingurumenarekin elkarreragin dezakeen URRETXUKO UDALAREN jarduera, produktu eta zerbitzuetako edozein elementu jotzen da ingurumen-alderditzat.

- Zuzeneko ingurumen-alderdiak: URRETXUKO UDALAK alderdi horien kudeaketaren kontrol osoa du (adibidez, baliabideen kontsumoa, instalazioetan hondakinak sortzea, etab.)
- Zeharkako ingurumen-alderdiak:
- URRETXUKO UDALAK ez du alderdi horien kudeaketaren kontrolik.



Hau da URRETXUKO UDALAK ingurumen-alderdien inguruan ezarritako sistematika:





<b>1. urratsa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ingurumen-alderdiak sor ditzaketen prozesuak identifikatzea</li> <li>- Lehen definitutako prozesuen sarrera eta irteeretako alderdiak identifikatzea</li> <li>- Zuzeneko edo zeharkako alderdiak identifikatzea</li> <li>- Alderdiak sorkuntza-baldintzen arabera sailkatzea (arrunta, ezohikoa edo arriskutsua)</li> </ul>
<b>2. urratsa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ingurumen-alderdiak ebaluatzeko irizpideak definitzea</li> </ul>
<b>3. urratsa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ingurumen-alderdiak ebaluatzea, esanguratsuak zein diren zehazteko</li> </ul>
<b>4. urratsa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ingurumena Hobetzeko Plana zehazteko esanguratsuak diren ingurumen-alderdiak adieraztea</li> </ul>




Lehen aipatutako urratsak urtean behin egiten dira, ingurumen-alderdiak ebaluatzeko irizpideen definizioa izan ezik, hori beharren arabera egingo baita.

Hurrengo tauletan, zuzeneko eta zeharkako ingurumen-alderdiak eta horiei lotutako ingurumen-inkaktuak (baldintza arruntetan) adierazi dira.

### ZUZENKO ALDERDIEN ETA LOTUTAKO INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA BALDINTZA ARRUNTETAN

GJH	JARDUERA/ZERBITZUA	INGURUMEN-ALDERDIA	ZUZENKOA/ ZEHARKAKOA	INPAKTUA
	Nekazaritza-ustiapenak	Ekoizpen ekologikoa	Zeharkakoa	Nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpen jasangarria, baliabide naturalen zentzuzko erabilera. Bioaniztasuna hobetzea. Airearen, lurzoruren eta uraren kutsadura babestea. Landa-eremuen garapenari laguntzea.
	Ondare-mendiaren kudeaketa	Mendi publikoaren ingurumen-, ekologia- eta paisaia-balioa	Zuzenekoa	Lurzoruko karbonoa eta nitrogenoa galtzea. Lurzoruren degradazioa (higadura, trinkotasuna...)
	Udalerriko mugikortasunaren kudeaketa	Energia-kontsumoa Berotegi-efektuko gasen emisioak Emisio atmosferikoak (CO, SO <sub>2</sub> , NO <sub>x</sub> , partikulak, etab.)	Zuzenekoa	Baliabide naturalak agortzea Ozono-geruza suntsitzea Berotegi-efektua handitzea

	Udalerriko airearen kalitatearen eta akustikaren kudeaketa	Emisio atmosferikoak (CO, SO <sub>2</sub> , NO <sub>x</sub> , partikulak, etab.)	Zeharkakoa	Ozono-geruza suntsitzea Berotegi-efektua handitzea
	Uraren zikloaren kudeaketa (hornidura)	Ur-kontsumoa udalerrian	Zuzenekoa/Zeharkakoa	Baliabide naturalak agortzea
		Hornidura-sarearen eraginkortasuna	Zuzenekoa	Baliabide naturalak agortzea
	Uraren zikloaren kudeaketa (saneamendua)	Hondakin-uren isurketa	Zuzenekoa	Lurrazaleko eta lurpeko uren kutsadura
	Udalerriko energia-kudeaketa	Energia-kontsumoa udalerrian	Zeharkakoa	Baliabide naturalak agortzea
		Energia berriztagarrien ekoizpena	Zuzenekoa/Zeharkakoa	Klima-aldaketa arintzea
	Jarduerak izapidetzea	Udalerriko jardueren ondorioz atmosferara egindako emisioak, zarata, hondakinak, uren kutsadura eta abar.	Zeharkakoa	Lurzoruaren eta lurrazaleko eta lurpeko uren kutsadura  Ozono-geruza suntsitzea eta berotegi-efektua areagotzea.
	Obra eta zerbitzuen lizentziak izapidetzea	Udalerriko obren ondorioz atmosferara egindako emisioak, zarata, hondakinak, uren kutsadura eta abar.	Zeharkakoa	Lurzoruaren eta lurrazaleko eta lurpeko uren kutsadura  Ozono-geruza suntsitzea eta berotegi-efektua areagotzea.
	Lurralde-antolamendua eta hirigintza-plangintza	Lurzoru artifizializatua	Zuzenekoa	Lurzorua galitzea. Lurzoruak iragazgaitz bihurtzea.
		Parke, lorategi eta berdeguneek hartzen duten azalera	Zuzenekoa	Hiriko berdeguneak handitzea/Klima-aldaketa arintzea
		Lurzoru kutsatuak lehengoratztea	Zuzenekoa	Lurzoruaren kalitatea hobetzea
	Bulegoen funtzionamendua	Bulegoko papera	Zuzenekoa/Zeharkakoa	Baliabide naturalak agortzea
		Ura		
		Energia		
		Paper-hondakinak	Zuzenekoa/Zeharkakoa	Lurzoruaren eta lurrazaleko eta lurpeko uren kutsadura
		Ontzien hondakinak		
	Errefusa			
Langileen mugikortasuna	Emisio atmosferikoak (CO, SO <sub>2</sub> , NO <sub>x</sub> , partikulak, etab.) Eta berotegi-efektuko gasen emisioak	Zeharkakoa	Ozono-geruza suntsitzea eta berotegi-efektua areagotzea.	

	Kontratazio publikoa	Hondakin solidoak sortzea Ur-kontsumoa, energia-kontsumoa eta berotegi-efektuko gasen emisioak (CO <sub>2</sub> )	Zeharkakoa	Ozono-geruza suntsitzea eta berotegi-efektua areagotzea.
		Hornitzaileen eta azpikontraten ingurumen-portaera	Zeharkakoa	Lurzoruaren eta lurrazaleko eta lurpeko uren kutsadura
		Instalazioak garbitzeko eta bideak garbitzeko produktuen kontsumoa	Zeharkakoa	
		Ur-kontsumoa instalazioak garbitzeko eta bideak garbitzeko zereginetan	Zeharkakoa	
		Hondakinak sortzea (garbiketa-produktuen ontziak)	Zeharkakoa	
Etxeko eta merkataritzako hondakinak sortzea	Etxeko eta merkataritzako hondakinak sortzea	Zeharkakoa	Lurzoruaren eta lurrazaleko eta lurpeko uren kutsadura	
	Gaikako bilketaren tasa			
	Energiaren eta klima-aldaketaren kudeaketa	Berotegi-efektuko gasen emisioak udalerrian	Zeharkakoa	Ozono-geruza suntsitzea eta berotegi-efektua areagotzea.
	Ondare- mendiaren kudeaketa	Bioaniztasuna galtzea	Zuzenekoa	Bioaniztasuna galtzea
		Inpaktua paisaian		Paisaia-kalitatearen galera
	Landa-bideen kudeaketa	Bioaniztasuna	Zuzenekoa	Bioaniztasuna galtzea
		Inpaktua paisaian	Zuzenekoa	Paisaia-kalitatearen galera

### ZUZENKO ALDERDIEN ETA LOTUTAKO INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA EZOHICO BALDINTZETAN, 2022

ZUZENKO ALDERDIAK EZOHICO BALDINTZETAN	INPAKTUAK
<b>KONTSUMOAK</b>	
Ekipo informatikoak Bulegoko altzariak Pilak Argiak	Baliabide naturalak agortzea



ALDERDIAK	INPAKTUAK
<b>HONDAKINAK</b>	
Ekipo informatikoak Bulegoko altzariak Pilak Erabilitako argiak	Lurzoruaren eta lurrazaleko eta lurpeko uren kutsadura

**ZEHARKAKO ALDERDIEN ETA LOTUTAKO INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA EZOHIKO BALDINTZETAN, 2022**

ZEHARKAKO ALDERDIAK EZOHIKO BALDINTZAK	INPAKTUAK
Ibilgailuak mantentzeko produktuen kontsumoa (olioak, ordezeko piezak, iragazkiak, etab.)	Baliabide naturalak agortzea
Ibilgailuen mantentze-lanetatik eratorritako hondakinak (olio erabiliak, olio- eta erregai-iragazkiak, pneumatikoak, etab.)	Lurzoruaren eta lurrazaleko eta lurpeko uren kutsadura

**ZUZENEKO ALDERDIEN ETA LOTUTAKO INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA LARRIALDIKO BALDINTZETAN, 2022**




LARRIALDI EGOERA (Orokorra bulegoan)	ALDERDIAK	INPAKTUAK
Sute arriskua Urretxuko Udaren instalazioetan	Emisioak atmosferara Arriskutsuak ez diren hondakinak sortzea Hondakin arriskutsuak sortzea	Lurzoruaren eta lurrazaleko eta lurpeko uren kutsadura Ozono-geruza suntsitzea Berotegi-efektua handitzea
Uholde-arriskua	Arriskutsuak ez diren hondakinak sortzea Hondakin arriskutsuak sortzea Ur-isurketak	

LARRIALDI EGOERA (Orokorra Bulegotik kanpo)	ALDERDIAK	INPAKTUAK
Sute- edo leherketa-arriskua	Emisioak atmosferara Arriskutsuak ez diren hondakinak sortzea Hondakin arriskutsuak sortzea	Lurzoruaren eta lurrazaleko eta lurpeko uren kutsadura Ozono-geruza suntsitzea Berotegi-efektua handitzea
Isurtzeko arriskua	Emisioak atmosferara Erregai, olio eta abarren ustekabeko isuriak.	
Erortzeko arriskua	Arriskutsuak ez diren hondakinak sortzea	Lurzoruaren eta lurrazaleko eta lurpeko uren kutsadura
Uholde-arriskua	Hondakinak sortzea	Lurzoruaren eta lurrazaleko eta lurpeko uren kutsadura

2023an ez da alderdi esanguratsurik zehaztu larrialdi-baldintzetan.


**INGURUMEN-ALDERDIAK EGOERA ARRUNTETAN**

Ingurumen-alderdiak ebaluatzeko, hainbat aldagai hartzen dira kontuan, ebaluatu beharreko alderdiaren arabera. Ondorengo taulan, alderdia ebaluatzeko kontuan hartu beharreko aldagaiak adierazten dira:

Ebaluatu beharreko alderdia	Kalteak edo onurak	Ingurumenaren egoera	Jatorria	Magnitudea	Arriskugarritasuna	Azken kudeaketa	Helmuga	Ingurumen-legedia	Interesdunen irizizak
 <p align="center"><b>2. GJH: GOSEA DESAGERRARAZTEA</b></p>									
Ondare-mendiaren balioa (ingurumena, ekologia, paisaia...)	X	X		X	X			X	X
Ekoizpen ekologikoa	X	X		X	X			X	X
 <p align="center"><b>3. GJH: OSASUNA ETA ONGIZATEA</b></p>									
<b>JARDUERA/ZERBITZUA: UDALERRIKO MUGIKORTASUNAREN KUDEAKETA</b>									
Energia-kontsumoa	X	X	X	X	X			X	X
Berotegi-efektuko gasen emisioak	X	X		X	X			X	X
Emisio atmosferikoak (CO, SO <sub>2</sub> , NO <sub>x</sub> , partikulak, etab.)	X	X		X	X			X	X
<b>JARDUERA/ZERBITZUA: UDALERRIKO AIREAREN KALITATEAREN ETA AKUSTIKAREN KUDEAKETA</b>									
Emisio atmosferikoak (CO, SO <sub>2</sub> , NO <sub>x</sub> , partikulak, etab.)	X	X		X	X			X	X
 <p align="center"><b>6. GJH: UR GARBIA ETA SANEAMENDUA</b></p>									
<b>JARDUERA/ZERBITZUA: URAREN ZIKLOAREN KUDEAKETA (HORNIDURA ETA SANEAMENDUA)</b>									
Udalerraren ur-kontsumoa	X	X		X	X			X	X





Ebaluatu beharreko alderdia	Kalteak edo onurak	Ingurumenaren egoera	Jatorria	Magnitudea	Arriskugarritasuna	Azken kudeaketa	Helmuga	Ingurumen-legedia	Interesdunen iritziak
Emisio atmosferikoak (CO, SO <sub>2</sub> , NO <sub>x</sub> , partikulak, etab.)	X	X		X	X			X	X
Berotegi-efektuko gasen emisioak (langileen mugikortasuna)	X	X		X	X			X	X
<b>JARDUERA/ZERBITZUA: ETXEKO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINAK SORTZEA</b>									
Etxe eta merkataritzako hondakinak sortzea	X	X		X	X	X	X	X	X
 <b>13. GJH: KLIMAREN ALDEKO EKINTZA</b>									
<b>JARDUERA/ZERBITZUA: ENERGIAREN ETA KLIMA-ALDAKETAREN KUDEAKETA</b>									
Berotegi-efektuko gasen emisioak udalerrian	X	X		X	X			X	X
 <b>15. GJH: LURREKO EKOSISTEMEN BIZITZA</b>									
<b>JARDUERA/ZERBITZUA: ONDARE-MENDIAREN KUDEAKETA</b>									
Bioaniztasuna	X	X		X	X			X	X
Paisaian duen inpaktua	X	X		X				X	X
Herritarrak ingurumenari buruz kontzientziatzea	X	X		X					X

**INGURUMEN-ALDERDIAK ARRISKU-EGOERETAN**

Ingurumen-alderdiak ebaluatzeko, hainbat aldagai hartzen dira kontuan, ebaluatu beharreko alderdiaren arabera. Ondorengo taulan, alderdia ebaluatzeko kontuan hartu beharreko aldagaiak adierazten dira:

Ebaluatu beharreko alderdia	Kalteak edo onurak	Ingurumenaren egoera	Jatorria	Magnitudea	Arriskugarritasuna	Azken kudeaketa	Helmuga	Ingurumen-legedia	Interesdunen irizizak
lhesak, jarioak eta isuriak	X	X		X	X			X	X
Suteak	X	X		X	X			X	X
Lur-jauziak	X	X		X	X	X		X	
Uholdeak	X	X		X	X			X	

Irizpide bakoitzerako lortutako balioak elkarren artean batuko dira, eta balio bat lortuko da. Lortutako balioaren eta alderdiaren arabera, honako taula honetan adierazten den moduan ebaluatuko da:

Ebaluatu beharreko alderdia	Irizpideetan esleitutako balioen baturatik lortutako balioa		
	TXIKIA	ERTAINA	ALTUA
Lehengaiak eta osagarriak	7tik 9ra	10etik 12ra	13tik 21era
Ura, energia elektrikoa eta erregaiak	6tik 8ra	9tik 14ra	15etik 18ra
Hondakinak	8tik 12ra	13tik 19ra	20tik 24ra
Emisio atmosferikoak	6tik 8ra	9 eta 14	15 eta 18
Isurketak	6tik 8ra	9 eta 14	15 eta 18
Zarata	6tik 8ra	9 eta 14	15 eta 18
Zerbitzua	6tik 8ra	9 eta 14	15 eta 18
lhesak edota jarioak	6tik 8ra	9 eta 14	15 eta 18





Suteak	6tik 8ra	9 eta 14	15 eta 18
Lur-jauziak	6tik 8ra	9 eta 14	15 eta 18
Uholdeak	6tik 8ra	9 eta 14	15 eta 18



Urretxuko Udalak zehaztu duenez, ingurumen-ebaluazio maila ALTUA lortzen duten ingurumen-alderdiak adierazgarriak izango dira, eta lehentasuna izango dute ingurumenarekin lotutako helburuak, xedeak eta programak ezartzerakoan.

Ez dago ebaluazio ALTUA lortu duen ingurumen-alderdirik. Beraz, adierazgarritzat jotzen dira eta lehentasunezkoak izango dira ebaluazio ERTAINA lortu duten alderdiak.

### **INGURUMEN-ALDERDI ESANGURATSUAK, 2023 URTEA**

Hauak dira ingurumen-alderdien ebaluazioaren ondoriozko alderdi esanguratsuak:

GJH	BIZI-ZIKLOAREN FASEA	JARDUERA/ZERBITZUA	INGURUMEN-ALDERDIA	INPAKTUAK
	Garraioa	Udalerriko mugikortasunaren kudeaketa	Energia-kontsumoa Berotegi-efektuko gasen emisioak Emisio atmosferikoak (CO, SO2, NOx, partikulak, etab.)	Baliabide naturalak agortzea Ozono-geruza suntsitzea Berotegi-efektua handitzea
	Zerbitzuaren gauzatzea	Udalerriko airearen kalitatearen eta akustikaren kudeaketa	Emisio atmosferikoak (CO, SO2, NOx, partikulak, etab.)	Ozono-geruza suntsitzea eta berotegi-efektua areagotzea.
	Zerbitzuaren gauzatzea	Uraren zikloaren kudeaketa (hornidura)	Ur-kontsumoa udalerrian	Baliabide naturalak agortzea
			Hornidura-sarearen eraginkortasuna	
	Zerbitzuaren gauzatzea	Energia berriztagarrien sustapena	Energia berriztagarrien ekoizpena	Klima-aldaketa egindako ekarpena Baliabideak (energia) agortzea
		Argiteria publikoaren kudeaketa	Energia-eraginkortasuna argiteria publikoan	
		Energia-kontsumoa udal-erakinetan	Energia-kontsumoa eraikin publikoetan	
	Zerbitzuaren gauzatzea	Jarduerak izapidetzea	Udalerriko jardueren ondorioz	Lurzoruaren eta lurrazaleko eta lurpeko uren kutsadura

			atmosferara egindako emisioak, zarata, hondakinak, uren kutsadura eta abar.	Ozono-geruza suntsitzea eta berotegi-efektua areagotzea.
	Zerbitzuaren gauzatzea	Lurralde-antolamendua eta hirigintza-plangintza	Emisio atmosferikoak (CO, SO <sub>2</sub> , NO <sub>x</sub> , partikulak, etab.)	Ozono-geruza suntsitzea eta berotegi-efektua areagotzea.
	Zerbitzuaren gauzatzea	Bulegoen funtzionamendua	Paper-kontsumoa Energia-kontsumoa	Baliabide naturalak agortzea
	Biziaren amaiera	Bulegoen funtzionamendua	Paper-hondakinak Ontzien hondakinak Organikoa Errefusa	Lurzoruaren eta lurrazaleko eta lurpeko uren kutsadura
	Zerbitzuaren gauzatzea	Langileen mugikortasuna	Emisio atmosferikoak (CO, SO <sub>2</sub> , NO <sub>x</sub> , partikulak, etab.) eta berotegi-efektuko gasen emisioak	Ozono-geruza suntsitzea eta berotegi-efektua areagotzea.
	Zerbitzuaren gauzatzea	Hondakinen kudeaketa	Etxeko eta merkataritzako hondakinak sortzea Gaikako bilketaren tasa Etxeko edo merkataritzako biohondakinak biltzea	Lurzoruaren eta lurrazaleko eta lurpeko uren kutsadura

Ez dago ebaluazio ALTUA lortu duen ingurumen-alderdirik. Beraz, adierazgarritzat jotzen dira eta lehentasunekoak izango dira ebaluazio ERTAINA lortu duten alderdiak.

### 3.2.2. Lege-betekizunak eta beste betekizun batzuk

Legezko ingurumen-baldintza berriak identifikatzeko edo aldatzeko informazioa udaleko idazkaritza teknikoaren bidez edo aldizkari ofizialak irakurriz lortzen da nagusiki.

Argitaratutako ingurumen-araudia aztertu ondoren, Ingurumen Kudeaketako arduradunak, beharrezkoa izanez gero, eguneratu egiten du FO-6.1.3-01 "Ingurumeneko lege-betekizunak". Horrela, argi eta labur jasotzen dira aplikatu beharreko lege-betekizunak.

Lege-eskakizunak kontrolatzen direnean ikusten bada ez dela betekizunen bat bete edota baimenen bat behar dela, gorabehera hori konpontzeko beharrezko ekintzak egingo dira.



### 3.2.3. Ekintzen plangintza

URRETXUKO UDALAK badaki oso garrantzitsua dela plangintza on bat egitea Ingurumena Kudeatzeko Sistemari aurreikusitako emaitzak lortuko dituela ziurtatzeko.

Hori dela eta, plangintza horretan emango den lehen urratsa Urretxuko Udalak kontuan hartu behar dituen arriskuak eta aukerak zehaztea izango da, lortu nahi diren efektuak areagotzeko eta saihestu nahi direnei aurrea hartzeko edo murrizteko, kanpoko ingurumen-baldintzek Urretxuko Udalarari eragiteko aukera barne, hala, etengabe hobetzea lortzeko.

Urtero egingo da arriskuak eta aukerak identifikatzeko, aztertzeko eta ebaluatzeko prozesu osoa, eta honako informazio hauek izango dira kontuan.

- Identifikatutako ingurumen-alderdiak
- Lege-betekizunak eta beste betekizun batzuk
- Erakundearen testuingurua (barruko eta kanpoko gaiak eta alderdi interesdunen beharrak)




## 4. LANGILEEK PARTE HARTZEKO PROGRAMA

Langileen parte-hartzea eta kontsulta ahalbideatzeko, Urretxuko Udalean beharrezko komunikazio-bideak ezarri dira, erakundeko maila guztien arteko barne-komunikazioa eraginkorra izan dadin, barne-bileren, posta elektronikoaren edo zerbitzariko postontziaren bidez.

Langileen prestakuntzari dagokionez, urteko prestakuntza-plan bat garatzen da urtero, langileek eskatutako prestakuntza-beharrak kontuan hartuta.

## 5. INGURUMENA KUDEATZEKO PROGRAMA

### 5.1. INGURUMENA HOBETZEKO PLANA (2024. URTEA)

GJH	Hobetzeko helburuak	Ekintzak	Arduraduna	Gauzatze o epea	Jarraitzea egiteko data
	Udalerriko mugikortasun iraunkorra hobetzea	Ibilgailu elektrikoaren erostea.	Udaltzaingoaren arduraduna	2023	2024ko urtarrila
		Bidegorria hobetzea	Aparejadorea/Garapen jasangarriko teknikaria		
		Aldirietako aparkalekuak	Alkatetza		
		Herritarren sentsibilizazioa: Sentsibilizazio-kanpaina mugikortasunaren Europako astean	Garapen jasangarriko teknikaria		
	Saneamendu sarearen hobekuntza:	Zuntz-zementuzko hodia aldatzea Agerre Biltegitik Erratzura doan zatian. Igerilekuko hondakin-urak Gipuzkoako Ur Partzuergoaren kolektorera konektatzea.	Aparejadorea	2023	2024ko urtarrila
	Energia-kontsumoa murriztea Energia berriztagarrien	Ekiola energia-erakundearen sorrera bultzatzea.	Alkatetza	2023	2024ko urtarrila

GJH	Hobetzeko helburuak	Ekintzak	Arduraduna	Gauzatze o epea	Jarraitpena egiteko data
	ekoizpena	Udalaren energia-plana. : ekintzak martxan jartzea (plaka fotovoltaikoak...)	Garapen jasangarriko teknikaria	2023	2024ko urtarrila
	Jarduerak legeztatzea bultzatzea	Ingurumenean eragina duten jardueren antolaketa: 2022ko datuekin alderatuta, legeztatutako jardueren kopurua handitzea	Arkitektoa/Aparejadorea	2023	2024ko urtarrila
		Lurzoruaren kalitatearen salbuespeneko prozedura idaztea	Garapen jasangarriko teknikaria	2023	2024ko urtarrila
	Kontsumoak optimizatzea eta hondakin gutxiago sortzea Kontratazio berdea publiko	Paper eta toner gutxiago kontsumitzea Kontratazio-errietan ingurumen-klausulak sartzea sistematizatzea Herritarrak sentsibilizatzea: Hondakinen inguruko sentsibilizazio-kanpaina Europako astean	Garapen jasangarriko teknikaria/Idazkaria	2023	2024ko urtarrila
	Energia-eraginkortasuna hobetzea.	Erregaien kontsumoa murriztea: ibilgailu elektrikoak erostea	Udaltzaingoaren arduraduna	2023	2024ko urtarrila
		Energia elektrikoaren kontsumoa murriztea: langileak sentsibilizatzea Gas naturalaren kontsumoa murriztea: tenperatura kontrolatzea	Garapen jasangarriko teknikaria/Aparejadorea	2023	2024ko urtarrila
	Irimo mendiko Biodibertsitate Plana martxan jartzea	Irimo mendiko biodibertsitatea hobetzeko ekintzekin jarraitzea	Alkatetza	2023	2024ko urtarrila
		Herritarrak sentsibilizatzea: Zuhaitzak identifikatzeko bisita gidatuak	Garapen jasangarriko teknikaria	2023	2024ko urtarrila
	Urretxuko Agendako 2030 Ekintza Plana idaztea	Plana idazteko laguntza teknikoak kontratatzea	Garapen jasangarriko teknikaria	2023	2024ko urtarrila

## 5.2. INGURUMENA HOBETZEKO PLANAREN JARRAIPENA (2023. URTEA)

<b>Jarduera / Zerbitzua: Mugikortasuna</b>		
<b>Helburuak:</b>		
<b>Mugikortasun jasangarria hobetzea</b>		
<b>Ekintza</b>	<b>Egindako gastua</b>	<b>Noiz egin den</b>
Ibilgailu elektrikoa erostea.	6.958,10 €	2023-08
Bidegorria hobetzea	17.005,82 €	2023-07
Aldirietako aparkalekuak. Kamioien aparkalekua birkokatze azterketa	Baliabide propioak	2023an zehar
San Martin /Barrenkale aldean egoiliarrentzako aparkaleku mugatu bat sortzea	5.817,13	2023-09
Sentsibilizazio-kanpaina Europako mugikortasunaren astean	Baliabide propioak	2023-09

<b>Adierazlea</b>	<b>2022</b>	<b>2023</b>
Partikula esekien kontzentrazioa ( $\mu\text{gr}/\text{m}^3$ )	13,00	14,22

### Helburuen betetze-mailaren ebaluazioa:

- Helburuen betetze-maila:** Aurreikusitako ekintzak martxan jarri diren arren, PM10 partikula esekien emisioen ehunekoa % 9,38 handitu da..
- Ekintzen gauzate-maila:** Aurreikusitako ekintzen% 100 gauzatu da. Mugikortasun Iraunkorrerako Plana onartzeke dago. Era berean, disuasio-aparkaleku bat sortzeko pausoak ematen ari dira, nahiz eta oraindik ez dagoen gauzatuta.
- Inpaktuak murrizten laguntzea:** Herritarrei motorrik gabeko ibilgailuak erabiltzea errazten zaienez, ozono-geruzan eta klima-aldaketan duten eragina murrizten eta baliabideen kontsumoa murrizten laguntzen da.

<b>Jarduera / Zerbitzua: Uraren zikloaren kudeaketa</b>		
<b>Helburuak:</b>		
<b>Saneamendu-sarea hobetzea</b>		
<b>Ekintza</b>	<b>Egindako gastua</b>	<b>Noiz egin den</b>
Zuntz-zementuzko hodia aldatzea Agerre Biltegitik Etxaburura doan zatian	-	-
Igerilekuko hondakin-urak Gipuzkoako Ur Partzuergoaren kolektorearekin konektatzea	5.324,85 €	2023-01

<b>Adierazlea</b>	<b>2022</b>	<b>2023</b>
Ibaien kalitatea: egoera ekologikoa	Neurrizkoa	s.d.

### Helburuen betetze-mailaren ebaluazioa:

- Helburuen betetze-maila:** helburuak zenbateraino bete diren ezin izan da ebaluatu, ez baitago 2023. urteko ibaien kalitatearen memoriarik. Instalazioetako bat berritzeko egin diren obren ondorioz izan daiteke, geldirik egon baita denboraldi batez.

- Ekintzen gauzatzeko-maila:** aurreikusitako ekintzen % 50 gauzatu da. Agerre depositutik Etxaburura doan zatian ur-hornidurako hodia aldatzeko, 2023an baloratutako memoria bat egin da, eta obrak 2024an egitea aurreikusten da.
- Inpaktuak murrizten laguntzea:** igerilekutik sobratzen diren urak saneamendu-sarera konektatuz gero, Urola ibaira nahi gabe isurtzea saihestuko da..

<b>Jarduera / Zerbitzua: Energia-kontsumoa argiteria publikoan eta eraikinetan. Energiaren eta klima-aldaketaren kudeaketa (ODS7-ODS13)</b>		
<b>Helburuak:</b> <b>Energia-kontsumoa murriztea</b> <b>Energia berriztagarrien ekoizpena</b> <b>Energia-eraginkortasuna hobetzea</b> <b>Erregai eta gas naturalaren kontsumoa murriztea</b>		
Ekintza	Egindako gastua	Noiz egin den
Ekiola Energia Erkidegoaren sorrera bultzatzea	-	2023an zehar
Udalaren Energia Plana. : Ederrena pilotalekuko eguzki-instalazio fotovoltaikoa martxan jartzea	91.871,73 €	2023-11-3
Ibilgailu elektrikoa erosiz erregai-kontsumoa murriztea (renting)	6.958,10 €	2023-08
Gas naturalaren kontsumoa murriztea, tenperatura kontrolatuz	-	2023an zehar
Gipuzkoa Argitu Tailerraren antolakuntza: Zure etxebizitzarako berokuntza sistematik egokiena zein den ezagutzeko tailerra.	-	2023-10

Adierazlea	2022	2023
Argiteria publikoaren urteko energia-kontsumoa (kWh/biztanle/urte)	57,87	51,02
Tokiko administrazioan energia berriztagarriak guztira ekoiztea (kWh/urte)	12.224,84	21.745,05
Eraikin publikoetako energia-kontsumoa (kWh/m2/urte)	79,65	76,79
Bidaia profesionaletan sortutako CO2e-aren urteko emisio totalak (lantaldeko ibilgailuak eta udaltzainak bakarrik) (CO2e kg/urte)	18.627,54	14.359,98

**Helburuen betetze-mailaren ebaluazioa:**

- Helburuen betetze-maila:**  
Argiteria publikoan, energia elektrikoaren kontsumoa % 11,83 murriztu da.  
Energia berriztagarrien ekoizpena %77,87 hazi da, batez ere Ederrena pilotalekuan plakak jarri direlako.  
Eraikin publikoetako energia-kontsumoa % 3,59 murriztu da.  
Bidaia profesionaletan sortutako urteko CO2e emisio totalak %22,9 jaitsi dira.
- Ekintzen gauzatzeko-maila:** aurreikusitako ekintzen % 100 gauzatu da.
- Inpaktuak murrizten laguntzea:** Energia-kontsumoa murriztean, BEGen emisioak murriztu dira.

<b>Jarduera / Zerbitzua: Jardueren tramitazioa</b>		
<b>Helburuak:</b>		
<b>Jarduerak legeztatzea bultzatzea</b>		
<b>Ekintza</b>	<b>Egindako gastua</b>	<b>Noiz egin den</b>
Ingurumenean eragina duten jardueren antolaketa: 2022ko datuekin alderatuta, legeztatutako jardueren kopurua handitzea	-	-
Lurzoruaren kalitatearen salbuespeneko prozedura idaztea	Baliabide propioak	2023-12

<b>Adierazlea</b>	<b>2022</b>	<b>2023</b>
Legeztatutako jarduera-kopurua/jarduera-kopuru osoa	-	-

**Helburuen betetze-mailaren ebaluazioa:**

- Helburuen betetze-maila:** ez dago helburuen betetze-maila ebaluatzeko daturik.
- Ekintzen gauzatze-maila:** ez dago helburuen betetze-maila ebaluatzeko daturik.
- Inpaktuak murrizten laguntzea:** ingurumenean eragina duten jarduerak legeztatzeak industria jasangarriagoa lortzen laguntzen du (9. GJH: industria, berrikuntza eta azpiegitura).

<b>Jarduera / Zerbitzua: Bulego-funtzionamendua/Hondakinen kudeaketa</b>		
<b>Helburuak:</b>		
<b>Paper- eta toner kontsumoa murriztea</b>		
<b>Hondakin gutxiago sortzea</b>		
<b>Kontratazio Publiko Berdea</b>		
<b>Ekintza</b>	<b>Egindako gastua</b>	<b>Noiz egin den</b>
Paper eta toner gutxiago kontsumitzea	-	2023an zehar
Kontratazio-orrietan ingurumen-klausulak sartzea sistematizatzea	-	2023an zehar
Hondakinen inguruko sentsibilizazio-kanpaina Europako astean	-	Ez da kanpainarik egin

<b>Adierazlea</b>	<b>2022</b>	<b>2023</b>
Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen %	27%	50%
Unit. paper-orriak A4/ETC/lanegun	24	26,3
Unit. paper-orriak A3/ETC/lanegun	1,62	1,97

**Helburuen betetze-mailaren ebaluazioa:**

- Helburuen betetze-maila:** Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen ehunekoa % 85 handitu da. Hala ere, A4 tamainako paper orrien kontsumoa %9,58 igo da, eta A3 tamainako orri kopurua %21,6.
- Ekintzen gauzatze-maila:** programatutako ekintzen % 66,6 egin dira. Europako Hondakinen Astearen Sentsibilizazio Kanpainarik egin ez den arren, urtean zehar lan egin da hondakinak biltzeko guneen ezaugarriak hobetzeko. Papera eta toner-kontsumoa murrizteko, izapidetze elektronikoa ezartzen jarraitu da.
- Inpaktuak murrizten laguntzea:** ingurumen-irizpideekin egindako lizitazioen % nabarmen handitzea lortu da, baina ezin izan da murriztu kontsumitutako paper-kantitatea.

**Jarduera / Zerbitzua: Ondare Mendiaren Kudeaketa**

**Helburuak:**

**Irimo mendiko Biodibertsitate Plana martxan jartzea**

Ekintza	Egindako gastua	Noiz egin den
Irimo mendiko biodibertsitatea hobetzeko ekintzekin jarraitzea: espezie autoktonoak landatzea Santa Barbara eremuan, eta landatutako azaleretan sastrakak kentzea eta garbitzea	13.403,56	2023-12
Herritarrak sentsibilizatzea: zuhaitzak identifikatzeko bisita gidatuak	1.352,73	2023-06

Adierazlea	2022	2023
Naturara bideratutako azalera (m2/bizt.)	17,09	17,09

**Helburuen betetze-mailaren ebaluazioa:**

- Helburuen betetze-maila:** Mantendu egin da natura kontserbatzeko biztanleko erabili den azalera.
- Ekintzen gauzatze-maila:** Aurreikusitako ekintzen% 100 gauzatu da
